

Istorio hunkigarriak ikuskizun bihurtuko ditu Musika Eskoleak
13. orrialdea

Aitzol Atutxa Euskal Herriko txapeldun

Aitzol Atutxak bere laugarren Euskal Herriko txapela lortu eban urri bigarrenaren 15ean Donostian. Dimoztarrak lehia gogorra izan eban Iker Vicente nafarragaz, baina irabazi egin eban 18 segundoko aldeagaz. Sano denporaldi ona egin dau txapeldunak, titulurik inportanteenak eskuratuz. Hilaren 22an, Urrezko Aizkoraren Ligako finala jokatuko dau.
11. orrialdea



Aritz Egea eta Ingrid Mutter Europako txapeldun Gorbeia Suziienen
11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

282

2017ko urri bigarrenaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org



Alkartasun jaia Artean

Kantu bat gara, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Herriko Bentak, garagarrilean jaiotako Abigail umeari ondo etorria emoteko jaia antolatu dabe. Pintxoak, taloa eta erromeria ez dira faltauko.

Herriko Benta errefujiadu eta migratzaileentzako harrera lekua eta laguntzarako gunea be bada eta bertako baten alabea da Abigail. Hilaren 27an, ume baten jaiotzak dakarren esperantzea ospatu gura dabe Artean. **5. orrialdea**

Mendi ibilbideak eta gehiago Arratiako paisajeak ezetuteko

Hilaren bigarren hamabostaldian, Ondareari buruzko Europako Jardunaldien barruan, jarduera ugari dagoz Arratian. Undurragako urtegia, Areatzako Euskal Jaia, Itxinako karsta, Gorbeia paisajeak organo inprobisazino baten bitartez, Zeanuriko Eleizondoko monumentu-moltsoa, Barazarreko zentral hidroelektrikoa eta Ubide-Zeanuri Larre-mankomunidadeen Zeharkaldia egiteko aukerea dago. **6. orrialdea**



ARRATIA

Enpresa Ideen Lehiaketea ipini dau martxan Mankomunitateak

Arratiako Enpresa Ideen Lehen Lehiaketarako deialdia egin dau Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) 18 eta 35 urte bitarteko gazteai zuzenduta. Sei mila euro bananduko dauz saritan eta irabazleari urtebetez lokala itxiko deuto.

Hiru sari dagoz. Lehenengoa 3.000 euro eta urtebetez lokala doban; bigarrena 2.000 euro. Beste 1.000 euroko sari bat dago, lehenengo sektoreari lotutako idearik onenarentzat.

Enpresearen egoitza edo produktzioa Arratian egon behar da, eskualdean enpresak sortzean lagunduteko da lehiaketea eta. Proiektuak zemendiaren 10era arte aurkeztu daitezke. **7. orrialdea**

AREATZA

Zemendiaren 5erako egitaraua emon dau jakitera Areatzako GEDk

Bezperan Vic-eko zinegotziak eta Gure Esku Dagoko Zelai Nikolasek berbaldia emotea dago aurreikusita. Egunean bertan, giza katea herri sarreratik plazaraino, ekitaldia, gazteentzako tailerrak, kantu-potea, herri bazkaria, batukadea, jantzak, kontzertuak, eta, botoak zenbatu ostean, gaztaina erreak. Boto emotea Dagigun alkartearen lokalean izango da, plaza ondoan, 09:00etatik 20:00etara. Gure Esku Dagokoen ustez, herri galdeketak "demokrazian sakontzeko tresnak" dira. **7. orrialdea**



DIMA

Baltzolako parajeak, ipuin mitologikoen eszenaleku izan dira

Baltzolako errekatxoa, Jentilzubi eta kobetatik zehar egindako ibilbidean, Txumuluxueta alkartekoak eta beste dimoztar askok, kantuak, jantzak eta antzerki ikuskizuna egin eban, mitologia ezetuten emoteko urri bigarrenaren 14an. Partaideak gainera, parajeen edertasunaz gozatu ahal izan eban eta Argazki Lehiaketarako argazkiak egin ebezan. Ibilbidea amaitutakoan txixi-burruntzia egon zan Dimako plazan. **8. eta 9. orrialdeak**



Francisco Macia 4-1º centro. 48014 BILBAO
Telefonoak: 94 607 19 85 / 652 702 650

Askatasun etorbidea 4. 48200 DURANGO
Telefonoak: 94 466 90 71 / 672 481 370

ARRATIA KOLOREETAN

ARRAKASTEA ETA ARGILUNAK

Zeberioko Austarri Korta Kultur Elkartea 2001ean sortu zan eta kultur ondare eta ekimenak izan dauz helburu, eta ondorioz, aha-lerinak arlo horrextara bideratu dauz. Austarri Kortak, hasieran 30 bat inguru bazkidegaz hasi zan, eta gero bere kopurua handitu egin dau. Ugalketa hau, besteak beste, Zeberio Suspertuten kultur taldeagaz bat egin izanaren emaitza be bada, eta bere ibilbide honetan beste adar bi sortu dauz: alde batetik Austarri Korua, bost bat urte iraun ebana eta Austarriemendi. Azken alkarte hau Austarriagaz lotuta dago, baina erabat autonomoa da eta arrakasta handikoa.

Austarri eredu arrakastatsutzat euki geinke, baina baditu hainbat argi-ilun. Hasteko, biztanleriaren

aldetik, Zeberio udalerrri txikia da, eta era berean, eremu sakabatu, eta horrek partaidetza gaxagoa egiten dau. Txikitutasun bankiloaren arazoa dakar eta ia beti ekimenen buru dabilen jentea beretsua izaten da. Arazo hau unibersala da, baina biztanleria gitxiko udalerritan larriagoa.

Badauka faktore lagungarri bat be, eskola proiektu on baten esistentzia. Eta Zeberion hori badauka. Egia da holan ekintza eretan mugaketa bat gertatu dala. Hasieran, adin desbardineta zuzentzen ziran ekimenak ugariagoak ziran, baina denporearen podesuz mugatu egin dira modalidadeak, eta umeai zuzendutakoak arruntenak izaten dira.

Udalerrri txikietan (seguruenik

handietan be bai), nerabeentzako ekitaldiak porrotera bideratuta dagoz, eta, egia esan, behintzat Austarriek ez dogu asmatu.

Urte guztietan, beraz, Austarri bere adarrak ugaritu egin dauz eta kultur arloko ekimenak mugatu. Hata guzti be, urtero, kultur eta mendi ekitaldien artean 30 bat antolatzen dauz. Ekitaldieta joaten dan jente kopurua aldakorra izaten da, umeentzakoetan 50 bat persona inguru izaten da, eta mendi taldekoetan 40 bat inguru, batz beste. Perspektiba honetatik be arrakastatsua da eredu. Zeberioko biztanleria 1.150 persona ingurukoa da, eta gainera oso zaharkitua. Beraz, publiko potentzialetik hurbiltzen dan kopurua oso esanguratsua da.



Kultur arloan egin izan diran ekimenak askotarikoak izan dira, ondarearen ezagutza eta zaintza, herriko altxor kulturalaren aurkikunde, urtero auzo jaietan partaidetza... Lan honeetatik batzuk bakarka, eta beste hainbat lankidetzan burutu dauz.

Hurrengo urteetara begira, argi-

ilunak jarraituko dabe eta gero eta gaxagoak izango dira kultur alkar-teentzako ekimen-ereduetan asmatzea. Espektakuluaren kulturak aurrera egiten dau, udalerrietako jentea gero eta mobikortasun eta akzesibilitate gehiago dauka beste kultur praktika batzuetara, partaidetza jorearen ahultzen dago, internetek berak barrikuntzearen maila igon egiten dau, eta alkarte honeen baliabide ekonomikoak oso eskasak izaten dira. Laguntza instituzionala oso garrantzizkoa da, baina Austarriren asmoa ahal dan eta autonomoena izatea be bada. Gaur arteko ibilbidea ona izan da, poztekoa. Etorikizuneko, batek daki, baina ona izango danaren itxaropena daukagu.

Austarri Korta Kultur Elkartea

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 16tik 22ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 23tik 29ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri bi. 30etik zementiaren 5era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak:

Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Rake Aldekoa Diez eta Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza),

Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte

(Dima), Iker Perez eta Jabi Peribañez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde

Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.200 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.200 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Sai zuri



Sai zuri edo sei zuri izeneko hegaztiak luma zuri-baltzak daukaz heldua egiten danean. Gaztelaniaz "alimoche" da. Sai zuriak animalia hildakoen hondakinak jateaz gain, arrautzak be lapurtuten ditu, gero jateko. Martian hasita eta urriak arte egoten da gure artean pasoko hegazti hau. Azken hamarkadetan baina, urritu egin da sano, eta ia ez da ikusi be egiten. Horregaitik, espezie honen euskerazko izenak be galtzeko arriskuan dagoz.

ERETXIA

Ez dugu konplize izan nahi!

Pasa dan urri lehenengoaren 15ean Esteban Beltrán, Jordi Armadans, Mario Rodríguez eta José María Vera, Amnesty International, FundiPau, Greenpeace eta Oxfam Intermón erakundeetako zuzendariak Greenpeace-ren Esperanza itsasontzian emon eben prensurrekoa Areetan, Bizkaiko Zubiaren ondoan, "Ez dugu konplize izan nahi!" lemapeko kontzentrazinora deitzeako.

Hilabete batzuk lehenago euskal suhiltzaile batek ez eban lagundu gura izan Saudi Arabiara joian arma-kargamentua ontziraten, kontzientzia arazoak alegauz. Haren jarkereak beste kontzientzia batzuk biztu ebazan. Gobernu Kanpoko Erakunde horreen prensurrekoa Bilboko Portuaren ondora ekarri eben, gutako asko Espainiak esportetan dituan hainbat arma euskal portutik urtetan dirala orduan jabetu ginan-eta. Atzen urtean soilik lehergailuz eta bestelako armaz betetako 300 kontainer erraldoi urten dira euskal portutik.

2016an Espainiak 116 milio euro balio daben armak esportatu ebazan Saudi Arabiara. Horreetatik 41 milio lehergailu, kohete, misil eta torpedotan; gainerakoa, ke-poteak, granada fumigena eta lehergailu su-eragileak. Baita be 650 milio, Yemengo Gerra 2015ean hasi zanetik. Gerra horren ondorioz, Nazino Batuen Erakundearen arabera, 5.144 lagunek bizitza galdu dabe eta 8.749 zaurituak izan dira.

Amnesty International-ek gerra hasi zan urtean bertan populazino zibilaren kontrako erasoak jasoten ebazan txostena eta eraso horreek demostretan ebazan hainbat ebidentzia bildu zituan, baita Nazino Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren aurrean aurkeztu be. "Saudi Arabia buru dauan koalizioak legez kanpoko aire eraso ugari egin ditu, horreetako batzuk gerra krimentzat hartu leitekeza-



JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA

Bilboko Amnistia Internazionalako kidea

nak, eta milaka zibil hil eta eskolak, ospitaleak, merkaduak eta etxeak hondatu ditue", esan eban Esteban Beltranek Areetako kontzentrazioaren prensurrekoan. "Espainia krimen horreen konplize izan leiteke", gehitu eban. Ez dago krimen horreetarako armak erabilten dabizan informazio garbirik, Espainiako Gobernu ez dalako beharko leuken bezain gardena. Amnesty Internazionaletik galdetu

jakon Mariano Rajoyren Gobernuari ea arma horreek Yemengo gerran erabilten ziran. Ez da erantzunik egon.

Saudi Arabiak herritar arruntai egindako eraso krudel horreez gainera, itsas blokeo pean dauka Yemen, laguntza humanitarioaren sarbidea eragotziz. NBE-ren arabera 19 milio yemendar desplazau dagoz laguntza humanitarioaren beharrean. Interbenzino humanitarioa eragozte nazinoarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larria da.

Bestalde, gerra eta blokeoan sartu barik be, Saudi Arabian giza eskubideen itzalik be ez dago. Saudi Arabian disidentziaren zapalketea, tratu txarrak, torturak, andren gaineko errepresinoa eta indarkeria ohiko gertaerak dira.

Espainiak, beraz, Saudi Arabiari armak saltzean deusazanean, bere lege propioa hausten dau, Defensa eta Erabilera Bikotzeko Materialen Kanpo Komertziorako 53/2007 Legea, hain zuzen be. Lege horren zortzigarren artikulua debekatzen dau material horreek saltzea, bakea, egonkortasuna edo segurtasuna munduko edozein lurraldetan apurtzen dauan estatu bateri; ondino gehiago, artikulua horrek berorrek debekatzen dau holango material errespetetan ez dituan estatuari edota barne errepresinoa eragiteko erabilten dituanari.

Ez lege propioa bakarrik ordea. Nazinoarteko legislazioaren gainetik be pasau da arma esportazio horreek egiteko. Espainiak 2014ean sinatu eban NBE-k urte bat lehenago Armen Komertziorako onetsitako Ituna, beren-beregi gerra eta errepresino kasuetan armen salmentea debekatzen ebana.

Bitxia da gero beste egoera batzuetan legea beteteko eskatzen dabilen gobernua, legea bete arazoteko gogor eta tinko jarri dan gobernua, armen kanpoko komertzioaren kontuan bere lege propioai eta nazioartekoai muzin egiten egotea!

Ez dogu desplazamentu behartu, eraso eta hilketa horreen konplize izan nahi!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enduak Batzua gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Sinboloak eta euskarriak

Aitortu behar deusuet aspaldiko irudi zoroen errebolutzio honek, ni be harrapatuta naukala; hain da fazi-la begietatik sartzean danagaz informatea! Aldizkari eta telebistak eskeintzen daben irudi zaparradearen artean, klase guztietako ikur, keinu eta seinale koloretsuak oparitutuen deuskuez egun batean bai eta beste batean be bai. Eta irudiak ez danez ahalgin handirik egin behar, erreza suertatuten jaku ikusten dogunaren gaineko eretxi arinak botatea; eta horretara, arin baten eretxiari buelta emotea bere. Ha-ta guzti be, behar eroso honeetan ibiltzen garanean, irudiari besteko inportantzia emoten deusagu dagoan lekuari, edo lekuaren jaubea edo errentadoreari, edo daukan esangura berari; azkenean, sinboloak eta euskarriak zein baino zein inportanteagoak diralako.

Halanda ze, aspaldi honetan politika, alkartasuna, errebin-dikazinoa, asmoak eta propo-

samenak hartuta gabiz balkoi eta hormetan, kamiseta zein buruetan. Zuria, larrosa, beilegia, gorria, baltza zein more koloreak, udagoienak berezko dauzan baso eta soloetako koloreakaz batera apaintzen deuskuez herriak. Baina bildur naz, larregi ikusi eta esku artean erabilten diran gauzakaz pasetan dan moduan, hainbeste ikutu eta ikustearen ikusteagaz, daukazan benetako sentidu eta esangura galduko ez ete daben. Bildur naz hainbatentzako sentimendu eta nortasunaren erakusle diran ikurrai ez ete deutsegu jagokien errespetua galduko. Eta batez be, bildurra deusat ikur, keinu eta seinale guztiakaz zabalduen dabilan uniformidadeari. Nik neuk bere, sendotasunez sinesten dot alkartasuna, askatasuna eta anaitasunarengan, eta aldarrikatu behar diralakoan nago, baina era berean, ez dot pentsetan gehiegi gehiago danik, ezta norberarenak danonak baino leku handiagoo hartu behar dauanik; horregaitik, ez neuke inolidariotzat hartuko, haizeak astinduta, geure ikurriña gure herrietako leku gehiagotan ikusiko baneu.

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Amets hondar bat

Urriko haize epelekin ahanztura bera ere zait hostogabetzen, harilkatutako murru altuenak ere suntsitzen, eta naizena baino ez naiz: arima zorigaitzoko bat etorriko ez denaren esperoan. Eta nahi nuke, beste ezer baino, zure bihotzaren gorrimina ume eskuekin haztatu, eta bertan lokartu.

Neguko ekaitz zakarrekin zalantza bera ere zait izozten, lainorik barrenenak ere hormatzen, eta utzi zenuena baino ez naiz: arima papur bat izkina itzaltsu batean. Eta nahi nuke, beste ezer baino, zure azal gazituan labaindu eta bertan ito.

Udaberriko eguzki itsugarriekin barrenak ere zaizkit loratzen, hegorik ezkutenak ere lumaberritzen, eta utzi nuena baino ez naiz: amets hondar bat, ate berde baten aurrean. Eta nahi nuke, beste ezer baino, zure begien iluntasunean kulunkatu, eta bertan jai.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Halloween gaua, hilen gaua, arimen gaua... udagoienak bizitzearen amaieragaz ipinten gaitu kontaktuan. Gurean, Ameriketako Estatu Batuetan lege, modu ludikoan, bildurra eragiteko, kalabazak hustu eta barruan kandelea ipinteko ohitorea egoan. Euskal Herrian eta baita Arratian be, pasa dan gizaldiaren erdira arte mantenu egin zan ohitura hori.

Eta orain, AEBtik etorritako moda bat balitz lege bueltau egin da eta umeak eta gazteak hor ibiltzen dira gure herrietan jolas artean heriotzea akordura ekarten, antxina lez, erritu barrizatuan kalabazakaz jentea bildurtuten.

Gazteentzat sorpresea izan da jakitea ohitura hori bertokoa be badala. Sorpresa asko ekarten ditu udagoienak. Eta espero ez dan leketan topatzen doguz.

Kalabaza landare honen argazkia Ainhoa Mendiak bialdu eban BEGITUko Argazki Lehiaketara.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igorme-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejola Zubiola 100
R.P.S. 2006

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA
Elexaola, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 82 - 906 664 018

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

DIMA

Dimako plazea berrantolatzeko beste parte hartze prozesu bat gura dabe herritar batzuek

Prozesu parte hartzailearen emoitzean oinarrituta, Udalak eta Ele Arkitekturako arkitektoak, Dimako plazea berrantolatzeko espazio publiko eta mobikortasunaren azterlana aurkeztu eben jentaurrean urri bigarrenaren 5ean.



Dimako plazea.

Erredakzioa

Berrantolaketeak mobikortasunean aldaketak dakar eta inguruko biztanleak berba egin eta gero, errotondatik Iturigorriara errepidea egiteko lanak aurten hasiko dirala esan eban Borja Ruiz zinegotziak. "Aurten asmoa da mobilidade arazoari aurre egitea. Plazeagaz beranduago hasiko ginake" esan eban zinegotziak. Iradokizunak egiteko epea zabalik dago.

Prozesu parte hartzailearen emoitzei jarraituz egindako proiektua aurkeztu eban Estebe Uribe arkitektoak, baina herritar batzuk ez dagoz ados emoitze horreekin. Izan be, plazea oinezkoentzat izateak zirkulazio arazoak ekarriko leukela uste dabe. Arkitektoak azaldutakoaren arabera, zirkulazioari jagokonean, aurkeztutako proiektuaren helburua leku guztietara heldu ahal izatea, baina plaza-

tik ahalik eta gitxien pasauta, izan zan. Landaburu kalea, bide bakarrekoa baina erabilera mistokoa planteau dabe; hau da, kotxe eta oinezkoentzat. Baina kotxeak 10 km/h abiaduran ibili behar izango dira.

Plazako aparkalekuak plazatik kendu eta goian barriak egitea aurreikusten dau proiektu teknikoak. Zabor kontenedoreak plazatik kanpo atera, eta plazarako sarbidea be aldatutea oinezkoari lehenatasuna emoteko.

Prozesuan ebatzitakoagaz adostasun faltea

Landaburu eta plaza inguruetan bizi diran auzotar batzuk ez dagoz prozesu parte hartzailean ebatzitakoagaz konforme. Batez be, plazaren oinezkoentzearen kontra dagoz. Horregaitik, beste prozesu bat eskatzen dabe euren eretxia kontuan hartuteko. "Prozesu parte hartzailean parte hartu ez gen-

duanok parte hartzeako, beste prozesu parte hartzaile bat egon beharko litzalekela uste dogu" esan eban aurkezpenera joandako herritar batek.

Parte ez hartzearen errazoiak artean, informazio faltea ez zala egon onartu eben. Bai ordea, hollango prozesuetan parte hartze ohitura faltea. Baina alkatearen ustez, "prozesu parte-hartzailean ebatzitakoa ezin da zalantzan ipini. Zelan esango deutsegu parte hartu dabena prozesuak ez dauka balio?".

Orain, iradokizunak jasoteko epea zabaldu dau Udalak urri bigarrenaren 23ra arte. Horretarako, liburutegiko portalean planoak ipini ditu ikusgai eta proposamenak idazteko buzoia. Udalaren webgunearen bidez be egin daitezke iradokizunak.

Prozesua

Dimako Udalak herrigintza modu parte hartzailean egiteko prozesua 2015ean abiatu eban. Herritarrek herrigintza zer dan eta parte hartzea zelan landu adostu ostean, lehenatasuna eukien proiektuak aukeratu ebezan. Herriko plazea oinezkoentzat diseineta atera zan egin behar zan lehena.

Plazea berrantolatzeko prozesu parte hartzaile urtailaren 29tik zezeilaren 23ra arte izan zan. Bertan, 69 nagusik, 52 umek eta hareen 5 irakaslek hartu eben parte, 4 proposamen eginez. Proposamen guztiak plazea oinezkoentzearen aldekoak izan ziran.

ibilbide gidatua. Izena hilaren 16tik 19ra emon behar da udaletxean. **20:00**etan, urdai jana.

Urri bigarrenak 21, zapatua

11:00etan, azokeraren hasikerea. **12:00**etan, umeentzako herri kirolen tailerra Herri Sporten eskutik. **13:00**etan, Berrizko San Lorenzo taldeak Erregelak, aurreku zaharra. **13:45**ean, Zeanuriko Etxandek. **15:00**etan, herri bazkaria. **18:00**etan, herri kirolak Goikokalen. **19:15**ean, Aiko taldea. Ostean, Larraintz jantzea eta berakatz zopea.

Zeanuriko Etxandek jantza taldeak eta Aikok animauko dabe eguna.

Urri bigarrenak 20, barikua

17:45ean eleizportalean batu ibilaldi gidaturako. 18:00etatik 20:00etara, Uparan auzoan hasita, Angel Larraintz "Baserritik uribildura"

AREATZA

Euskal jantza ugari aurtengo Euskal Jaian

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 20 eta 21ean izango da X. Areatzako Euskal Jaia. Aurten, azokeaz gainera, jantzak izango dabe protagonismo berezia. Herriko trikitilariak eta panderojoleak, Berrizko San Lorenzo jantza taldeak,

ARTEA

Arteako plazan kantu jaia Abigail umearen jaiotza ospatuteko

Arteako Herriko Benta taberna eta jatetxe bat baino gehiago da. Elikadura subiranotasunaren oinarrien inguruan lan egiteaz gainera, errefujiadu eta migratzaileentzako harrera gunea be bada.

Erredakzioa

Garagarrilean ume bat jaio zan, Abigail, eta Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) eta Arteako Herriko Bentak, Kantu bat gara taldearen laguntzeagaz, jaia antolatu dabe urri bigarrenaren 27rako umearen jaiotza ospatuteko.

"Abigail Eguna: elkartasuna eta esperantza" lelopean, jaia arrastiko 19:30ean hasiko da Arteako plazan. Kantu jaia eta pintxoak egongo dira. Jantza, mezu eta kantu berezien bitartez agurra egingo deusie Abigail umeari eta erromeria egongo da gero Kantu bat gara taldeagaz.

Herriko Benta

Herriko Bentaren proiektua babesteko, hilean behin kontzertuak eta beste ekintza batzuk antolatuten dira. Ildo honetatik, Benta ondoko etxean hainbat proiektu dagoz; tartean denda bat zabaldu tea. Dendearen inaugurazioa be, hilaren 27ko jaietan izango da.

Arma komertzioaren kontrako kanpaina

Urri lehenengoaren 26an, errefujiaduak birkokatze eta birrezartze epea amaitu zan, Europako Gobernuak eurek ezarritako "kuotak" bete bari. Espainia 17.000 igeslari hartzera konprometidu zan, eta horreetatik %11 baino ez ziran etorri fetxa horretarako. Europak 180.000 errefujiadu hartzeako konpromisoa hartu eban eta %27koa izan zan batz besteko betetze maila.

OEEren datuen arabera, munduan 113 biztanletik 1 errefujiadu

dua da. "Zer egin dau Europak prozesu honetan atzen urte biotan? Turkia, Libia eta Marokogaz, euren herrietatik pasu seguruak oztopatzeko, akordioak sinatu ditu, hau da mugak kanporatu".

Konpromisoak ez beteteaz gainera, jentearen leku aldatzearen jatorri diran gerra eta gatazka armaduak elikatzen dabezan arma komertzioan jarraituten dauala Europak salatuten dau Plataformek. "Orain dala gitxi jakin dogu Bilboko portutik Saudi Arabiara 300 lehergailu edukiontzia baino gehiago bialdu dirala, eta 2015etik aurrera 650 miloe euro armetan saltzeako konpromisoa dagoala Espainia eta Saudi Arabia artean. 2015ean, Saudi Arabia Yemengo biztanleria, merkaduak, eskolak, ospitaleak... bonbardeatuten hasi zan".

Espainiar estaduan arma gehien saltzean dauan erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa da. OEEK emondako datuen arabera, 85 miloe euro, hain zuzen be. Hori dala eta, OEEK eta hainbat alkarte eta plataformak armen kontrako kanpaina ipini dabe martxan.

Arratiako OEE

Egoera horren aurrean, Arratiako OEEK, sensibilizazioa eta konplizidadeak sortzeako egiten dau behar; konpromisoak hartuz eta injustiziaz salatuz. Helburua, errefujiadu, migrante, igeslari eta bizimodu hobe baten bila bere herritik alde egin behar izan dabenenetzako Arratia Harrera Herria bihurtutea da. Horretarako gizartea eta erakundearen alkarlana behar da.



Herriko Benta.

ARRATIA

Autoestimua, motibazioa eta adimen emozionala adikzioak prebeniduteko**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateko Prebentzio Komunitario Zerbitzuetik, Arratiako gurasoai zuzendutako tailerrak antolatu ditue Lemoan, Igorren eta Zeanurin. Zerbitzuko ustez adikzioen prebentzioan familia oinarria da, bertan transmitiduten diralako bizitza osasuntsurako balioak, arauak, ohiturak eta jokamoldeak. Horregaitik gurasoai tresnak emon gura deusez gazteak adikziorik ez garatuteko.

Guraso Eskolan, beraz, hilaren 23an, Lemoan, seme-alaben autoestimua landuten ikasiko dabe. Igorreko saioa zemendiaren 23an izango da eta han motibazioa sustatzeko teknikak landuko dira eta Zeanurin, adimen emozionala garatuteko estrategiak abendua- ren 14an. Izena tailerra baino 5 egun lehenagora arte emon behar da Arratiako Udal Mankomunitate- ra deituta edo bere webgunean

eta taldea osotuteko gitxienez 5 pertsonen emon behar dabe izena.

Adikzioen Prebentzio Komunitario Zerbitzuak, prebentzio programak bultzatzen ditu eskolan, familian eta komunitatean; telefono bidezko arreta edo arreta personala eskeintzen dau eta informazioa, formakuntzea eta aholkularitza emoten deutse udalari, gizarte eragileari, familiei eta abar.

Adikzioak prebeniduteko plana

Mankomunitateak, adikzioen prebentzioaren diagnostikoa eta plan mankomunitate ipini dau martxan. Plana 2020ra arte egongo da indarrean.

Egindako diagnostikoaren arabera, Arratiako ikasleen artean gehien konsumiduten diran drogak alkohola, tabakoa eta kannabisa dira, orden horretan eta orain dala 10 urteko datuakaz konparatuta, alkohol eta kannabis konsumoak behera egin dabe.



ARTEA

Andren osasuna bultzatzeko ikastaroa egongo da Arteako Kultur Etxean**Erredakzioa**

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan eta Arteako Udalak antolatuta, urri bigarrenaren 20 eta 21ean, gorputza ezetu eta osasuna jagoteko ikastaroa emongo dau Patricia Verdes Bardintasunerako agentea, psikologoa eta sexologian adituak.

Ikastaroak saio bi izango ditu. Barikuan, hilak 20, 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan, 10:00etatik 13:00etara. Ikastaroa gaztelaniaz izango da.

Hausnarketarako eta praktika-

rako espazioa da eta partaideak andren osasun mobimentuak sortutako osasun praktikak ikasi eta beste "osasun praktikak sortzeako asmoagaz, zalantzan jarri, esperimendu eta ikertu" egingo dabe.



ARRATIA

Arratiako paisajearen ondarea ezetuteko zazpi hitzordu dagoz hamabostaldi honetan

Ondareari buruzko Europako Jardunaldien 17.

edizinoak 300 jarduera baino gehiago eskeiniko

ditu urri bigarrenaren zehar Bizkaiko 78 udalerritan,

herritarrai ondare kulturala hurreratzeko helburuagaz.

Aurtengo gaia "Paisaia bizia" da, eta ondarea

lurraldearen ikuspuntutik jorratuko da.

Erredakzioa

Hilaren bigarren hamabostaldi honetan zazpi zita dagoz; Artea eta Ubiden bana, Areatzan bi eta Zeanurin hiru. Eta mota askotako paisajeak ikusi ahal izango dira: mendiak, herrigunekoak, larreak, urtegi bat eta erlijioagaz eta industriagaz lotutako paisajeak.

Hilaren lehenengo hamabostaldian, Angel Larrea gidaritzapean 19 lagunek Igorren Aramotzeko magaletik Igorreko haranera izeneko bisitaldia egin eben. Zeanurin, hilaren 7an, San Justoko karobia, harestia eta baseleizea, eta 14an, Iburguen eta Alzusta kofradiak bisitatu ebezan.

Zeanuriko Undurragako urtegia

Urri bigarrenaren 18an, goizeko 10:00etan, urtegi dira Zeanuriko plazatik Undurraga urtegiaren ingurune ederra bisitatu gura dabenak. Herrigunetik kilometro batera dago Arratia erreko bidean. Urtegia 1973 urtean inauguratu zan eta paisajea aldatu eban, Alkibar eta Undurraga auzuneetako etxe batzuk ur azpian geratu ziran eta.

Euskal Jaia eta Areatzako paisajeak

Hilaren 21ean, Areatza, Artea eta Zeanurin egongo da aukerea Arratiako hainbat paisaje eta urteen podesuz izan daben aldaketak ezetuteko.

Areatzan, 11:00etatik aurrera, Euskal Jaia egingo da. Bezperan, hilaren 20an, 18:00etan, Angel Larrea historialariaren eskutik ibilbide gidatua egongo da Uparan auzunean hasita, "Baserrietatik uribildura" izenpekoa. Orain arte herrigunetik kanporantza izan dira bisitak, baina aurten norabidea aldatu eta kanpotik herrigunerantza izango dira, aldaketa politiko eta sozialak herria zelan aldatu daben ikusteko.

Itxinako karsta ezetuteko be aukerea egongo da egun horretan bertan. Izan be, Gorbeia-Areatzako Parketxeak, Itxinatik oinezko ibilbide gidatua antolatu dau 09:00etatik 14:00ak arte. Karstaren forma geologikoaz gainera, antxinako

emongo dau Jon Urutxurtu historialariak.

Andra Mari parrokiak, Piedade santutxo-baselizak eta Nestor Barrenetxeak egindako Gorbeiaiko kurutzeak osotuten dabe moltsoa.

Barazarreko zentral hidroelektrikoa

Mendiko paisajeak, herrigunekoak, urtegiak eraldatutakoak, musika- ren bidez gogora ekarritakoak eta paisaje erlijiosoak ezetu ondoren, paisaje elektrikoaren txandea izango da.

Hilaren 25ean, 10:00etan Zeanuriko plazan bildu eta Barazarreko zentral hidroelektrikora bisitatu egiteko aukerea dago.

Barazarreko zentrala 1950eko hamarkadan sortu zan Bizkaiko Labe Garaiak enpreari zerbitzua emoteko. Zentrala egin eben sasoiaren, 1948 eta 1958 bitartean, Undurragan 3.000 persona inguru bizi ziran. Aldaketa handiak ekarri eban auzunean eta inguruko paisajearen.

Ubide-Zeanuri Larre-mankomunitatearen Zeharkaldia

Hilaren 28an, 12 km.ko mendi ibilaldia egiteko aukerea egongo da Ubideko plazatik 10:00etan urten eta Erdi Aroko galtzadatik zehar, Zeanuriraino. Mende bat baino gehiago da Ubideko eta Zeanuriko Udalak urtero biltzean dirala euren larre-komunitateko kontuak kitzatzeko. Bilera horretaz baliatuta, herri bien arteko zeharkaldia antolatuten da, urte baten Ubidetik Zeanurira eta hurrengoan Zeanuritik Ubidera.

ogibideen hondarrak topauko ditue partaideak, baita kondairaz eta mitologiak betetako kobazuloak be.

Gorbeiaiko paisajeak organo kontzertu batez

Arteko parrokia-eleizan, Noël Hazebroucq-ek organo kontzertua eta inprobisazioa eskeiniko dauz hilaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara. Kontzertu horretan Gorbeiaiko paisajeak ekarriko ditue gogora, paisaje horretako elementuak musikaz irudikatuz. Pieza batzuk, Gorbeialdeko irudietan inspiratuta inprobisatuko ditue.

Noël Hazebroucq (Paris, 1979) Parisko konserbatorioko irakaslea da eta Batignolles eleizako organojole titularra. 2004an, Parisko Grand Prix d'Improvisation saria irabazi eban.

Eleizondoko monumentu- moltsoa

Zeanuriko paisaje erlijiosoak ikusteko be bisitaldi gidatua egongo da hilaren 21ean, 10:00etan. Plazan batu eta Elizondora joango dira partaideak. Han, auzuneko monumentu moltso erlijiosoaren barri



Larre-mankomunitatearen Zeharkaldia.

ARRATIA

Enpresa Ideen Lehiaketea abiatu dau Mankomunidadeak

Arratiako Enpresa Ideen Lehen Lehiaketarako deialdia egin dau Arratiako Udalen

Mankomunitateak (AUM) 18 eta 35 urte bitarteko gazteai zuzenduta.

Erredakzioa

Sei mila euro bananduko dauz saritan eta irabazleari urtebetez lokala itxiko deutso. Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia programeagaz lankidetzan, lehiaketaren helburua "ekintzailatza kulturea sustatu, ekonomia bultzatu eta eta enplegua eta aberastasuna sortzea" da. Proiektuak zemendiaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira eta sari banaketea abenduaren 14an izango da.

Lehenengo saria 3.000 eurokoa da, eta, horrez gain, urtebetez lokal bat doban itxiko deusie irabazleari. Bigarren saria 2.000 eurokoa da, eta 1.000 euroko beste sari bat emongo jako lehen sektoreari lotutako idearik onenari. Izan be, Mankomunidadekoen ustetan, "sektore hori estrategikoa da Arratian oindino be".

Enpresearen egoitza edo ekoiz-

pen gunea Arratian egon behar da eta 2017 urtean daborduko sortutako proiektuak be hartu leikie parte.

Epaimahaiak proiektuaren izaera barritzailea hartuko dau kontuan batez be. Baita balio erantsia eukitea edo-eta originala izatea eta kalidadezko enplegua sortzeako dituan aukerak be. Era berean, proiektuaren garapen eta zehaztasun-maila, iraunkortasuna (ingurumenari eta ekonomiari jagokienez) eta gizartearen daukan eragina izango ditu kontuan.

Saria jasoten daben proiektuen ideak eta horreen jabetza intelektuala Arratiako Udalen Mankomunidadearenak izango dira, eta "jarri ahal izango dira martxan, zuzenean edo hirugarrenen bitartez, idea aurkeztu dauan enpreseagaz edo hori barik; beti be, idea sortu daben personak hori garatzeko asmorik ez badaukie".



ARRATIA

Arratiako ikas komunitateko foroa sortu da

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 10ean, Igorreko Kultur Etxean, Arratiako hezkuntza munduko langile eta eragileak bildu ziran Ikas komunitate lankidetzaren foroaren sorreran. Foro hori, Arratiako Garapenerako Errotak 2016. urtean egindako diagnostikotik

eratorritako hezkuntza mailako erronketako bat izan zan. Hori dala eta, Errotak berak 2017 urterako ezarita eukan helburuetako bat da.

Lehenengo saio honetan 20 partaide baino gehiago bildu ziran Arratiako hezkuntzari buruzko hausnarketa sakon bat egiteko eta etorkizuneko lan ildoak definitzeko. Foroa Marakaren laguntzeagaz bideratu zan eta idea interesgarri ugari ateratu ziran, Iratxe Goikoetxea Errotako koordinatzailearen arabera.

Hurrengo egunetan parte hartu daben eta bertaratu ziran guztia zuzentzen bananduko jakie.

AREATZA

Herri galdeketerako atzera kontua hasi da

Gure Esku Dagoko (GED) Areatza Dagigun

Elkartekoak, "ilusinoz eta gogo handiz" bizi dabez zemendiaren 5eko galdeketerako atzen egunak.

Erredakzioa

Helburua, hautestontziak kalera ateratu eta ahalik herritar gehienek parte hartzea da, euren ustez, demokrazia sakontzeko tresna diralako herri galdeketa.

Boto aurreratua egiteko aukerea egongo da urri bigarrenaren 28 eta 29an, 10:00etatik 14:00etara, Bekokalean, Dagigun alkatereko lokalean, plaza ondoan. Lokal hori be izango da botoa emateko lekua zemendiaren 5ean, goizeko 09:00etatik gaueko 20:00etara.

Galdeketa egunaren bezperan, zemendiaren 4an, 18:00etan Vic-eko PDeCat, ERC eta CUPeko zinegotziak eta GEDko Zelai Nikolasak berbaldia ematekoak dira Udal Aretoan.

Galdeketea jai giro errebindikatuazalean egingo da. Izan be, Areatzakoak Arratiako GEDko talde

guztiak konbidatu ditue eta herri sarreratik plazarainoko giza katea egingo dabe. Ekitaldian, Dima eta Zeanuriko taldeai emongo jakie berbea eta hautestontziaren testigua Igorreko taldeari pasauko deutsee; Igorrekoak datorren urtean antolatuko dabe herri galdeketea eta.

Galdeketa egunean Areatzako plazan talo txosnea egongo da.

Egitaraua

10:00etan, trikitalarien kalejirea.
11:00etan, giza katea eta ekitaldia plazan.
12:00etan, gazteentzako joko eta tailerrak.
12:30ean, EinGO taldeagaz kantupotea.
15:00etan, herri bazkaria plazan.
17:00etan, Areatzako batukadea.
18:00etan, Dantza plaza Areatzako txistulariakaz.



19:00etan, kontzertua.

20:00etan, botoak zenbatu eta gaztaina erreka.

Hamahiru herritako olatua

Zemendiaren 5ean, 13 herritan egingo dabez herri galdeketa: Andoain, Areatza, Atxondo, Beizama, Berango, Erandio, Elantxobe, Galdakao, Getxo, Mundaka, Ibarangelu, Leioa eta Otxandion, hain zuzen be. Hamahiru herri honeetan, 160.000 biztanle bizi dira eta orain arte Euskal Herriko 165 herritan egin dira galdeketa.

ARRATIA

Beldur Barik jarkerea Hezkuntza formalean sartu da

Erredakzioa

Beldur Barik ikusentzunezko lehiaketa bat baino gehiago da. EAEko instituzinoak alkarlanean bultzatuta indarkeria sexistea prebeniduteko gazteai zuzendutako programea da Beldur Barik. Bere helburua gazteak batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea jendarte eraldaketan lagunduteko. Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardinatasun arloak, oin arte, Beldur Barik jarkerea sustatzeko hezkuntza in-

formalean egin dau behar. Aurten, Hezkuntza Formalean be saio batzuk egingo ditu.

Lemoako DBH3n, Igorreko Arratia Institutuan eta Zulaibarko Oinarriko Lanbide Heziketan, Feminismoa, sexu aniztasuna eta "ligoteo sanao" landuten hasi dira. Hiru orduko saio bakarra izango da aurtengoa, baina datorren urterako plan bat egin eta ordutegi zabalagoa izatea espero dau Xabier Pastor Beldintasan Teknikariak. Gaiok Beldur Barik-eko materialagaz landuko ditue. "Beldur Barik-eko materiala gazteentzat dagoan programarik potenteena da eta uste dot baliabide horreek erabili behar dirala" dino teknikariak.

Andra baseritarren egoera

Urri bigarrenaren 15ean, Andra Nekazarien Nazinoarteko Eguna da eta Diman egun hau ospatuten dabe. Hori dala-eta, hilaren 19an, bideoforuma egongo da 17:30ean Jubiladuen lokalean. Hamar-hamabi minutu bideo

pare bat proiektuak da, *Gaur 8 Azokan* eta *Susterrak*, gero horren gainean berba egiteko.

Autobusa

Hilaren 23tik 30era, Beldintasunerako Gune Ibiltaria; hau da, autobusa, Arratian izango da. Umeakaz Nahiko programea landuko dau eta gazteakaz gizarte sareen arriskuak genero ikuspegitik. Herritarri informazio orokorra emongo deutsee urri bigarrenaren 23an, 16:15etik 19:00etara Lemoako eskoletan. Urri bigarrenaren 23an Lemoako eskoletan egongo da autobusa; 24an, Artean; 26an, Igorreko eskoletan; 27an Areatzakoan; 30ean, Zeanurin, Zulaibarren lehenengotik eta eskolan gero, eta 31n Arratia Institutuan Igorren.

Autodefensa eta Clown tailerrak

Urri bigarrenaren 27ra arte, zemendiaren 3 eta 4an izango diran neskentzako Autodefensa tailerra eta mutilentzako galtzean ikasteko clown tailerretan izena emon daiteke AUMko webgunean.

Tailerrak Igorreko Kultur Etxean izango dira, zemendiaren 3an, barrikuan, 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara. Neskentzako Autodefensa ikastaroa Emagin taldeko Pili Alvarezek emongo dau, eta mutilentzako Clown tailerra Zipritzintzen taldeko Juanma Rodriguezek.



JENTILAK DIMAN


Baltzola inguruko paraje zoragarriak izan ziran ipuin mitologikoen eszenaleku

Urri bigarrenaren 14an, antolatzaileen datuen arabera 400 bat lagunek egin eben Txumuluxueta Elkartek eta Dimako Udalak antolatuko *Jentilak Diman* jaialdiko ibilbide mitologikoa. Ipuin mitologikoak kontau ahala, dimoztarrak antzeztu egin ebezan personajeok Baltzolako erreka bazterretan, Jentilzubi inguruan eta Baltzolako kobetan.

Txikerrenak, disfruteteaz gainera, bildurra be pasau eben. Izan be ibilbidean, laminak, Sugoï, Basandere, Olentzaro, Behigorri eta Gizotso agertu ziran, jentilez gainera.



Ehun bat lagun ibili
ziran antolakuntza
beharretan



arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Ainetatzeko sistemak
Aire zungatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak



arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

ARRATIAKO MERKATARITZA EGUNA
Igorreko Kultur Etxeko plazan
Urriaren 28an
10:00 - 20:00

Erosketak egiteko autobusa dohainik
Arratiako herri guztietatik
egun osoan zehar

Zeanuritik -- Areatza -- Artea -- Arantzazu -- Igorrera	10:15	16:15
	11:45	17:45
Bediatik -- Lemoa -- Dima -- Igorrera	10:45	16:45
	12:15	18:15

Taloak salgai

Erosketak egiteagatik Areatzako
Bainuetxerako bono baten zozketan parte
hartzeko aukera





Arratiako enpresa ideia lehiaketa 2017

Sariak

1. saria: 3.000 € eta
Enpresa-guneko lokal bat urte batez doan lagatzea.

2. saria: 2.000 €

Lehen sektoreari lotutako idelarik onena: 1.000 €,
aurreko sarietako baten bat jaso ez bada;
kasu horretan, edo lehen sektoreari lotutako proiekturik aurkezten ez bada, zenbateko hori hirugarren sari gisa emango da.

Epea 2017-11-10 (14:00)

INFORMAZIO GEHIAGO
94 631 17 17
www.arratia.net



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

RAID-A

VI. Arratia Raid zazpi orduko proba Igorren izango da aurten

Erredakzioa

Arratia Raid eta Areatzako Lamino Kirol Klubak antolatuta, urri bigarrenaren 21ean, VI. Arratia Raid jokatu da. Arratiakoa, Iparraldeko Raid ligako zazpigarren proba da.

Goizeko 10:00etan hasiko da eta 7 orduko iraupena izango dau. Partaideak bikoteka lehiatuko dira. Bikoteak andrazkoak edo gizon-nezkoak osotuta, eta mistoak izan daitezke, eta Kultur Etxean izango da taldeen harrerea, 08:00retatik 09:00etara. Aurtengoak hiru atal izango ditu. Lehenengoa, BTT, mendi bizikleteagaz egiteko atalak 32,5 kilometro eta 1200 metro desnibel positibo dauka, baina 5 km. bakarrik dira beharrezkoak transinora joan etorria egiteko. Gura dauanak 32 km.ak egin ahal ditu baina ez da beharrezkoa. Izan be, "danok gozatuteko aukera eukiteko, ebagi ahal dira km. asko" dinoe antolakuntzatik.

Bigarren atala trekking-a da. Atal honek 17 kilometro ditu eta

1300 metro desnibel positibo.

Orientazio herrikoiak eta proba espezialak osotuten dabe azken atala. Honek 9 kilometro eta 150 metro desnibel positibo dauka. GPS edo walkie-talkie-rik ezin da erabili; bai ordea, mapak eta iparrorratza. Partaide guztiak oparia jasoko dabe.

Raida amaitutakoan, 17:30ean bazkaria egongo da herriko plazan eta 18:00etan opari gehiago zozketatu dira. Izen emotea zabalik dago arratiaraid.blogspot.com helbidean.



FUTBOLA

Talde guztiak hasi dabe ligea

Erredakzioa

Arratia taldeko andrazkoak atzen hiru partiduetatik, bat galdu, beste bat irabazi, eta beste bat bardindu dabe. Arratia hirugarren da orain sailkapenean. Hurrengo partidua Añorga Bren kontra jokatu dau Arratiak Igorren, urriaren 21-22ko astegoienean.

B taldeak hasi dau ligea

Andrazkoen B taldeak be hasi dau ligea, launa bardindu eban zapatuan,

hilak 14, Ezkuri taldearen kontra. Hurrengo partidua Basauriko Kimuak taldearen kontra jokatu dabe Urbietan 21-22ko astegoienean.

Gizonezkoak

Arratiako gizonezkoen taldeak 1 eta 2 irabazi eutsan Deriori hilaren 12an jokatu partiduan. Aurreko partiduan Arratiak bana egin eban Loiuaren kontra Igorren. Hurrengo partidua Aurreraren kontra jokatu dau Urbietan 21-22ko astegoienean.

Arratia B eta LemoaHarrobi taldeak be hasi dabe ligea. Lemoako taldeak partidu biak irabazi ditu eta Igorrekoak biak bardindu. 21-22ko astegoienean derbian neur-tuko dira talde biak Lemoan.

MENDIA

Zeberioko parajeetatik zehar ibiliko dira mendizaleak bere egunean

Erredakzioa

Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Zeberioko inguruetan 16 km.ko mendi ibilaldia eginda ospatuko dabe Arratia, Otxandio, Ubide eta Zeberioko Mendizale Eguna urri bigarrenaren 29an. Urtekerea, 08:30ean izango da Zeberioko plazatik. Ibilbidea, Zeberio, Piku-bikotx, Garaigorta, Aibelabe eta barriro be Zeberio izango da. Ibilbide erdian, jan-edana egongo da eta amaitukeran kopautxo.

Arantzazuko Argiñatx Mendi Taldeak, Areatzako Lamino Kirol Klubak, Igorreko Motxogan Kultur Taldeak, Lemoako Ganzabal Mendi Taldeak, Otxandioko Miru-gain Mendigoizale Elkartek, Ubideko Amexier taldeak, Zeanuriko Joko Alaik eta Zeberioko Austarri Mendi Taldeak antolatuten dabe txandaka ibilaldi bat urtean-urtean, es-

kualdeko mendizaleak alkar ezetu eta, gehien gustetan jakiena eginda, eguna alkarregaz pasetako. Parte hartzeako, izena hilaren 25a baino lehen emon behar da, aitatutako mendi taldeetan.

Austarri Mendi Taldea

Austarri Mendi Taldea Zeberion sortu zan 2011n. Austarri Kultur Taldearen mendi saila da, eta mendira urtekerak, eskaladea, espeleologia, mendi jardunaldiak eta marxa luzeak antolatuten ditu beste ekintza batzuen artean. Lokala plazako eskoletan daukie eta barikuetan 20:00etatik 21:00etara egoten dira bertan.

Bazkideen kuotak eta Udalaren diru-laguntzea dira taldearen finantziario iturri nagusiak.



BOLA TXAPELKETEA

Ibarguenentzat Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea

Jon Urutxurtu

Ibarguenek irabazi eban Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea. Altzustako bolalekuan jokatu zan taldekako txapelketa hau urri bigarrenaren 1ean. Egitarauaren arabera, urri lehenengoaren 30ean jokatu behar bazan be, egun horretan euria egin ebanez, hurrengo egunean, domekan jokatu behar izan eben.

Lehenengo tokia Ibarguenek eskuratu eban 11 txirlo botata. Bigarren Altzua sailkatu zan eta hirugarren Altzusta, batak zein

bestek 9 txirlo botata, baina bien arteko gerrea -desenpatea-



Ibargueneko bolariak saria jasoten.

Altzustak irabazi eban.

Ibargueneko laukote irabazlea honako bolari honek osatu eben: Jose Mari Beitia, Jon Aranguren, Julen Llanos eta Jon Uru-txurtu. Eskuratu eben saria: 120 euro eta afaria Kiloterdi Txokoan, Ellauri hotelaren jatetxean.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

MENDIA

Aritz Egeak eta Ingrid Mutter-ek irabazi dabe Gorbeia Suzien

Zeanuriko lasterketea irabazita, Europako txapela be lortu eben Egeak eta Mutter-ek.

Erredakzioa

Aritz Egea Euskal Herriko selekzinoko urretxuarrak hiru ordu minutu bi eta berrogeta hamabost segundotan egin ebazan Gorbeia Suzieneko 31 km.koak. Antonio Martinez eta Cristobal Adell valentziarrak osotu eben gizonetzkoen podiuma. Lehenengo bosten artean, hiru euskaldun egon ziran. Izan be, Jokin Lizeaga laugarren sartu zan helmugan eta Ander Iñarra bosgarren.

Andrazkoetan, Ingrid Mutter errumaniarrak irabazi eban lasterketea, hiru ordu hogeta hamazazpi minutu eta berrogeta zazpi segundoko denporeagaz. Celia Chiron frantziarrak eta Sheila Aviles katalanak osotu eben podiuma. Lehenengo euskalduna Oihana Azkorbebeitia izan zan, helmugara sartu zan laugarren andrazkoa, hirugarrenetik minutu erdira, aurreko postuengaitik burrukan ibili eta gero. Kilometro eta erdi falta zala bigarren zan.

Arratiarrak

Aitor Elduaian, Gorbeia Suzien lasterketako esatariak esan eban legez, igorretarrak izan ziran nagusi arratiarren artean. Gorka Amuriza eta Onditz Iturbe izan ziran arratiarren artean helmugara heltzean lehenak. Amuriza 58. izan zan gizonetzkoen sailkapenean eta Iturbe 30.a andrazkoenean.

Zeanuri jentez beteta

Antolakuntza taldea sano pozik agertu da lasterketeagaz. "Ez da ustekabe edo istripu larririk gertatu, jai giro parebakoan joan da astegoiena eta bai korrikalari bai ikusleen aldetik erantzun bikaina jaso dogu".

Seigarren edizinoa izan da aurtengoa eta urtean-urtean haziz doala dinoe. "Herria, bailara eta Gorbeia Parke Naturala ezetuten emoteko sortu zan lasterketea, eta nazinoarte mailan be gure ingurua mapan kokatzea lortu dogula uste dogu. Gure herria, gure hizkuntza eta gure kulturaren zati bat" azaldu eutsan BEGITURI antolakuntzak.

Lasterketako zapatu-domekan, jentez beteta egon zan Zeanuri eta aurreko asteetan be lasterketari asko hurreratu ziran ibilbidea ezetutera. "Gauzarik ederrenetakoa herri osoa proiektuaren alde alkarlanean ikustea izan da".



Aritz Egea goiko argazkian, Jokin Lizeaga eta Ingrid Mutter azpikoetan. Behekoan, Oihana Azkorbebeitia. Argazkiak: Edu Martin.

AZKOREA

Aitzol Atutxak Euskal Herriko bere laugarren txapela irabazi dau

Erredakzioa

Aitzol Atutxak Euskal Herriko txapela urri bigarrenaren 15ean irabazi eban Donostian, Iker Vicente bigarrenari 18 segundo aterata.

Txapela lortzeako sufridu eba-la aitortu eban Atutxak. Izan be, Iker Vicente Otsagabiakoa hur joan jakon txapela lortzeako lehia osoan zehar. Hasikeratik hartu eban aurrea txapeladunak baina lehenengo enborretan Vicentek eta Mugertzak eutsi egin eutsien, eta bosgarren enborra ebagiterakoan, 10 segundo baino ez ebazan bere alde Aitzol Atutxak. Handik aurrera, Dimakoa alde handituz joan zan eta 40:53ko denporan amaitu eban lana.

Sailkapena

Bigarren Iker Vicente izan zan, 41:11ko denporeagaz; hirugarrena Mikel Larrañaga, 43:50ko denporeagaz. Laugarrenak, Iñaki Azurmendik 44 minutu eta 7 segundo behar izan ebazan lana amaituteko; Joseba Otaegik

44 minutu eta 39 segundo eta Ugaitz Mugertzak 46 minutu eta 45 segundo.

Atutxak Urrezko denporaldia

Denporaldi ezin hobea egin dau dimoztarrak. Izan be aurten, Euskal Herriko txapelaz gainera, Urrezko Aizkolarien binakakoa eta banakakoa, Urrezko Kopea eta urri bigarrenaren 12an Bizkaiko Binakakoa be irabazi dau.

Urrezko Aizkolarien binakakoa, Atutxarentzat zazpigarrena, Ugaitz Mugertzagaz irabazi eban.

Orain Urrezko Aizkorako Txapeladunen Ligako finala dauka aurretik.

Urrezko Aizkorako Txapeladunen Ligako finala

Urri lehenengoaren 15ean jokatu zan Urrezko Aizkorako Txapeladunen Ligako atzen jardunaldia. Han, Jon Rekondo nagusitu eta hirugarren geratu zan dimoztarra, Iker Vicente eta Jon Rekondoren atzetik.

Hirurak jokatuko dabe finala urri bigarrenaren 22an Getxon.



Aitzol Atutxa. Argazkia: Lorea Bilbao.

MENDIA

Dimako mendien zeharreko ibilaldi bi aukeran Zizetan Mendi Martxan


Erredakzioa

Urri bigarrenaren 21erako, XI. Zizetan Mendi Martxea antolatu dabe Diman. Aurreko urteetan legez ibilbide bi egongo dira aukeran. Partaideak goizeko 08:00retan

urtengo dira frontoi txikitik. Ibilbide luzeak 28 km. ditu eta laburrak 17 km. Luzea zein laburra egiten dabenak Belatxikietara igoko dira. Luzea aukeratuten dabenak Artaxegane eta Larrunganeren tontorak be zapalduko dabez.

Ibilbide luzea aukeratuten dabenak plazatik urten eta Biterino, Bikarregi, Artaun, Belatxikieta, Urtemondo, Mugarrekolanda, Baltzola, Indusi eta Bargondiatik pasauko dira. Laburra egiten dabenak barriz, ibilbide bardina egingo dabe Urtemondoraino eta gero Odioletik joko dabe Artaunera eta Bikarregitik pasauta plazan amaituko dabe ibilaldia.

Izena aurretik emon daiteke Dimako Udalaren webgunean, 8 euro pagauta edo egunean bertan, martxea hasi aurretik 12 euroko prezioan.



KARABIE

Karabie
Gaztetxea
nagusi egin da

Erredakzioa

Lemoako Karabie Gaztetxeak 18 urte bete ditu aurten. Urri bigarrenaren 28an urteurren jaia ospatuko dabe, bazkari, jolas eta kontzertuakaz. Calling The Riot Zornotzako rock taldeak kontzertua eskeiniko dau eta Brutality Sound System Bilboko DJak ipiniko dau musikea gauean.

Jaia goizean hasiko da Gaztetxean

bertan. "Giro onean, ondo pasau eta disfrutatuko eguna izango da. Sortu, barre egin, jolastu... Karabieko esentzia" dinoe antolatzaileak.

Bazkalostean, jolas "dibertigarri eta gogorak" eta ondoren goitiberak egongo dira. Sorpresak be egongo dirala dinoe.



ZINEKLUBA

Iranen girotutako banpiro film
bat Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Zemendiaren 2an, Igorreko Zineklubak, Ana Lily Amirpour zuzendariaren *Una chica vuelve a casa sola de noche* (AEB, 2014) film "ganberroa" pantailaratuko dau, 20:00etan, Lasarte Aretoan. Filmak, zinema independentea, banpiroak, western-a eta maitasun istorioa nahasten ditu.

Una chica vuelve a casa sola de noche Amirpouren lehenengo filma da. Sitges-eko jaialdiko 2014ko saria eta zuzendari barri onenari Gotham saria be jaso eban estreinau zan urtean. Aktore lanak, beste batzuen artean, Sheila

Vand-ek, Arash Marandi-k eta Dominic Rains-ek egin ebezan.



ZINEA

Dimako Maider Latatu umeak
saria jaso dau *Motxilaren umea*
filman egindako lanagaitik

Erredakzioa

Castilla-La Manchako XIV. Nazioarteko Zine Sozialeko Jaialdian, Haur Interpretazio Onenaren Saria Maider Lataturi emon deusie *Motxilaren umea* filman egindako lanagaitik.

Motxilaren umea film laburra zati bat Diman grabau zan, Dimako eskolan, hain zuzen be, eta bere ume protagonistea, Maider Latatu, dimoztarra da. Rita Naveiraren zuzendaritzapean, Jose Angel Aramendi, Maider Latatu eta Itziar Ituñok, ama espetxean 700 km.tara daukan ume baten istorioa kontetan dabe. Filmak, benetako historia eta datuetan oi-

narrituta, umeen afektibidaderako eskubidea eta amak hazita izateko eskubidea aldarrikatzen dauz.



Maider Latatu.

LIBURUA

Zeberrioko Galder
Izarzugazak *El nacimiento
de un rey eleberria*
kaleratu dau

Izarzugazaren lehenengo liburua da nobela

hau, baina narrazioak biltzean dauan beste bat argitaratuko dau zemendian.

Erredakzioa

Zeberriokoa informatikaria da lanbidez, baita literatureaz gainera, Antxinako Egiptoaren zale amorratua. *El nacimiento de un rey* Egiptoko historiaren hastapenetan dago girotuta.

Ez dala nobela historikoa dino egileak, "fikzino historikoa" baino. "Historiako zati bat hartu eta hortik aurrera istorio bat asmatu dot".

Personaje batzuk historikoak dira eta beste batzuk asmatutakoak.

Hirugarren liburu bat prestatzeko materiala be badauka: Antxinako Egiptoren inguruko hainbat material. Baina hau "etorkizuneko proiektua da". Bere lehenengo liburu biak euskeratu eta ingelesera itzuli gura ditu.

Autoediziorako argitaletxeak Liburua autoeditatua da, Caligra-



Galder Izarzuaga.

ma argitaletxean. Caligrama Penguin Random House taldekoa da. "Aukera desbardinak dagoz. Eurak egin dabe maketazinoa, azala...". Liburua Casa del Libro eta El Corte Ingles-en erosi daiteke, baita Amazon-en be.

Amazon, interneteko liburu-dendak, autoediziorako argitaletxea be badauka eta bigarren liburua Amazon-egaz egiten dabilala dino Zeberriokoa.

MUSIKEA

Urdangarinen
kontzertua
Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 27an, iluntzeko 20:30ean, kontzertua eskeiniko dau Mikel Urdangarin Zornotzako musikariak Igorreko Lasarte Aretoan.

Margolaria bere atzenengo disko kantuak kantaiko ditu. Hamar kantu "gizakiaren barrura begiratu samur bat botateko eta norberaren bakardade gordinean bizi diran ahuleziak eta zalantzak askatasun kantu bilakatzeko". Hamar kantu honeetako musikea Urdangarinek berak sortu dau; baita 7 kanturen berak. Gainontzekoak, Gerardo Markuletaren poesia bi eta Xabier Amurizaren bertsoak dira.

Mikel Urdangarinek 1997an kaleratu eban bere lehenengo diskoa, *Haizetan* izenekoa, eta hogeitau urte honeetan, ehundaka kontzertu emon eta 15 disko kaleratu ditu, besteak beste.



Mikel Urdangarin.

ERAKUSKETEAK

Prozesu sortzaile kontzientek,
hamahiru artista plastikoren
erakusketea ikusgai Igorren

Maritere Bilbaoren koadroa.

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxean Ines Medinaren mintegian parte hartzean daben artista plastikoen erakusketa kolektiboa ikusi ahal izango da urri bigarrenaren 20tik zemendiaren 25era. Inaugurazinoa hilaren 20an, 18:00etan, izango da eta bertan Borja Estankona musikari arteztarrak emonalditxo egingo dau. Goizeko 10:00etatik gaueko 20:45era bisitatu ahal izango da erakusketea.

Erakusketearen komisarioa Ines Medina mintegiko irakaslea da. Aurten, Ainhoa Pazosek, Ana Rosa Arroyok, Ane Undurragak, Arantza Pinedak, Edorta Bilbao, Elena Solatxik, Feli Agirrek, Loli Undagoitiak, Marian Daubagnak, Marisol Calzadak, Maritere Bilbaok, Miren Bilbaok eta Tere Uribe-Etxebarriak erakutsiko dabez euren lanak erakusketa honetan.

MUSIKEA

Luis Iruarrizaga Abesbatza kantari bila dabil



Luis Iruarrizaga Abesbatzaren igazko argazkia.

Erredakzioa

Luis Iruarrizaga Abesbatza kantari bila dabil, batez be gizezkoen abotsak behar ditue.

Taldea 1980an sortu zan. Sasoirik onena, orain dala 10 urte izan eban, 25. urteurrenaren inguruan. Gero, jentea galtzean hasi zan. Orain jente barria erakari eta abesbatza indarbarritu gura dabe taldekoak.

Gaur egun 31 personak osutuen dabe abesbatza, Arratia osokoak. Errepertorio aberatsa daukie, "oso zabala. Euskeraz, gaztelaniaz, ingelesez... kantetan dogu. Jenteak pentsetan dau eleizako kantuak osotuten dabela errepertorioa baina musika pop,

kantu herrikoiak, Mikel Laboarenak... danetarik daukagu. Adibide bat ipintearren, Gernikan egon ginnan Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformeak antolatutako ekitaldian kantetan" azaldu deutso BEGITURI Luis Iruarrizaga Abesbatzako kantari batek.

Kantetako tradizioari eusten

Arratian euskaldunon kantetako tradizioari ondo eusten jakola uste dabe abesbatzakoak. "Horretan lagundu dau kantu-poteak. Baina Abesbatzan kantetako ensaioetan jarraitasuna behar da, konpromiso bat". Abesbatzak martitzen eta eguaztentean daukaz ensaioak, arrastiko 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean.

MUSIKEA

Hunkitzen daben arratiarren istorioak eta musikeak bat egiteko proiektuak darrai

Arratiako Musika Eskolea, igaz Euskal Herriko Unibertsitateagaz (EHU) eta Arratiako herri batzukaz alkarlanean, musika eta emozioen arteko loturea esperimintetan eban proiektu baten murgildu zan. Abenduaren lehenengo hamabostaldian aurkeztuko dabe disziplina asko batzean dituan ikuskizun barria.

Erredakzioa

2016-2017 ikasturtean abiatu zan proiektua. Orduan, Arratiako Musika Eskolakoak, edade desbardineta 27 arratiarri minutu bateko iraupeneko bizi-tzako pasarte bat eskatu eutseen. Historia horreek Magisteritza Eskolara bialdu ebezan eta hango ikasleak, 12 aukeratu eta bakotxari musikea sortu eta moldatu eutsien. Ondoren, Arratiako Musika Eskoleak, Igorre eta Lemoako eskolakaz batera, abesti horreei zerbaist gehitu eutsen: koreografia bat edo perkusinoa ipini, esate baterako. Holan sortutako ikuskizuna, Igorreko Kultur Etxean eta Lemoako frontoian eskeini eben.


Soundpainting teknikea

Aurten, Arratiako beste alkar-te batzuei be parte hartzeako aukerea emonez, proiektuari

beste buelta bat emon gura izan deutsiela azaldu deutso BEGITURI Izaskun Arriaga Arratiako Musika Eskolakoak. Historiatxo horreek barriro hartu eta abenduan, zuzendutako inprobisazinoa egiteko asmoa daukie. "Soundpainting izeneko teknikea erabiliko dogu". Keinu batzuk erabilia, zuzendariak adierazoko deutso partaide bakotxari noz eta zelan inprobisau. Disziplina desbardineta artistak igazko hamabi historia hunkigarrietan oinarrituko dira euren bat-bateko jardunerako. Arratiako bertsolaritza eskolak, jantza taldeak eta abar, konbidau gura dabez ikuskizun honetan parte hartzera.

Eskolaumeak, publiko eta aktore

Disziplina askotakoa izan arren, ikuskizunaren oinarria musikea da. "Arratiako eskoletako musika



arduranakaz kontaktuan gabiz. Eskolako umeak izango dira publikoak, baina publiko parte hartzailea. Eurak be ikasiko ditue bospasei seinu eta zuzendariak esan deikie eup! Zeuek!" dino Arriagak.

Musika Eskolakoak gura dabe ikuskizunaren aurretik Magisteritzako ikasleak soundpainting klaseak emotea eskoletan eta ikuskizun egunean, publikoaren artean egotea dinamizatzaile lanetan.

Musika Eskoleak, Unibersidadeak, bertsolariak, jantzariak, edozein arlotako artistak eta eskolaumeak, bat egingo dabe musikea eta emozioak batzean dabezan arratiarren 12 historia kontetako.

DUNBA

Andrazkoak Lanbide Heziketan

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Atzen 20 urteotan, Lanbide Heziketako ikasketak egin dituen andrazkoen kopurua bikoztu egin da, eta gizezkoen kasuan baino zertobait gehiago igon da.

Gaur egun, Lanbide Heziketako ikasleen % 38 andrazkoak dira. Hata guzti be, kontuan hartzekoa da oso aldakorra dala lanbide arloaren araberako banaketea, andrak tradizioz euren generoari jagokiezan lanbideak aukeratzan dituelako. Matrikulazio datuak adierazgarriak dira: andrazko ikasleen kopurua askoz handiagoa da osasun, zerbizu soziokultural, komunitate, administrazio eta kudeaketa arloko

zirkloetan. Presentzia txikia daukie barriz, industria arlokoetan: Elektrizidadea eta Elektronika, Fabrikazino Mekanikoa, Mantentze-lanak eta Produktzio-zerbitzuak eta Informatika zirkloetan, hain zuzen be.

Industria bizkor aldatzen dabil, eta lana aurrera aterateko, gero eta adimen eta gai gris gehiago behar da. Lanpostu jakin batzuk gizezkoentzat dirala dinoen estereotipoak aldatu gura doguz. Hori ez dalako egia, eta etorkizunera begira ondino gitxiago. Eta kontuan hartzekoa da, European Komunikazinoaren Teknologiaz lotutako 100.000 lanpostu barri sortzean dirala urtero. Horreek holan, 2017an 1.000.000 lanpostu eskeiniko zirala aurreikusten zan. Espezializazio ezak kontratazioa zailtzen dau, eta aukera horretaz be baliatu daiteke andrazkoa.

Honetaz berba egiteko Zulaibarren Ziklo Industrialetako hiru neska alkarizketatu doguz.

Anek unibersidadean karrera bat egin dau, eta orain Erdi Mailako Instalazio Elektriko eta Automatikoak zirkloan dago. Ainhoa enpresa baten

lanean dabil eta Goi Mailako Produktzioaren Programazino zirkloan dago. Esther Goi Mailako Diseinua Zirkloan dago eta martian Batz S. Koop-era Formakuntza Dualean lanean joango da eta 2018ko bagilean Trokelgintzako espezializazioa egingo dau.

Zergaitik ez dira neskek zirklo industrialetan matrikuletan, ezta mutilak persona ezinduari arreta egiteko zirkloetan be?

Ane: Gizartean rol batzuk ezarrita dagoz. Andrak lan batzuk daukiez eta gizezkoak beste batzuk. Nire ustez heziketa kontua da. Ez da neskek ez garalako kapaz holango lanak egiteko edo mutilak ez dirala kapaz persona ezinduak zaintzeko.

Azkenengo 20 urteotan Lanbide Heziketara neskek badatoz; zirklo industrialetara ez ordea. Zer uste dozue egin ahal dala hau aldatuteko?

Ainhoa: Lehenengo enpresetatik hasi behar da, eurak ez dabe egiten ezer andrak euren enpresetara hurreratuteko.

Ane: Galdera hori oso zabala da, hainbeste gauza aldatu beharko litzateke.

Esther: nik uste dot neska askok ez dakiela zelango lan motak egin leikezan Lanbide Heziketako Ziklo Industrialak ikasi ezkerro. Azaldu ezkerro, igual eretxia aldatuko leukie.

Gaur egun, fabrika baten lan egitea ez da zeozer fisikoa: industria 4.0, informatikearen erabilera handitu da, nanoteknologia, lan taldeetan lan egiten da... Zelan zabaldu lei hau gizartean?

Ane: Sektore honek propagandan neskek integratu. Argazkietan neskek agertuteak lagunduko leukie. Normaldutea izango litzateke soluzioa.

Gizarte iraultza bat egon beharko leitike. Norberak emon behar dau pausua. Niri klaseko batek esan eustan, "zirklo hau ez da neskena"; eta nik erantzun neutsan, "zeintzu dira nesken zirkloak ba?". Holango komentarioak ezin dira pasetan itxi.

Gaur egun lanpostu gehien sortzean dauan sektorea industria da. Lanbide Heziketea



egiten dauanak lana ziurtuta dauka, baina neskek ez dira animetan. Zuek zelan animauko zeinkiez neskek Lanbide Heziketara?

Ane: Enpresak be ez dabe ezer egiten neskek animetako. Ni familiaren presinoagaitik unibersidadera joan nintzan karrera bat egiten. Eta oin nik ikasi nebanaren inguruan ez daukat lanik. Jentea konzienziau behar da. Etxetan, eskoletan, kalean... Langabe dagozan andren egoerea ezetu behar da. Nik ezetuten dodaz hainbat, egoera prekarioan lanean, kontratu barik, 24 orduko lanaldia, soldata lotsagarriak... Beti andrazkoak egiten dabez lan horreek.

AGENDEA

URRI BIGARRENAK 17 AREATZA

Hilaren 19ra arte, 20an izango dan "Baserrietatik uribildura" ibilbide gidatuan parte hartzeako izen emotea udaletxean.

ARRATIA

Zemendiaren 10era arte aurkeztu daitezke Arratiako Enpresa Ideen Lehen Lehiaketarako proiektuak AUMn.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, San Martín egunean (zemendiak 11) babak egiteko izena emon liburutegian.

Urri bigarrenaren 20ra arte, Euskerearen Aldeko Leloen Lehiaketa.

LEMOA

Hilaren 20ra arte, Jubiladuen egunerako izen emotea udaletxean. Hilaren 28an ospatuko da.

URRI BIGARRENAK 18 BEDIA

18:00etatik 18:30era, Jubiladu eta pensionisten Gemikako Azokarako hilaren 30eko urtekerarako sarreren salmentea eskoletan.

LEMOA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra jaien balorazioa egiteko. Udaletxean.

ZEANURI

10:00etan, Undurragako urtegi bisitaldi gidatua. Plazan.

URRI BIGARRENAK 19 DIMA

17:30ean, bideoforuma. *Gaur 8 Azokan* eta *Susterrak* dokumentalak Jubiladuen lokalean.

LEMOA

10:00etatik 22:00etara, Bularreko minbiziaren aurkako eguna. "Bat egin arrosarekin" zu be arrosaz jantzita etorri. Kiroldegian.

URRI BIGARRENAK 20 AREATZA

17:45ean, eleizportalean batu Angel Larreagaz ibilbide gidatua egiteko. 18:00etatik 20:00etara, Uparan auzoan hasita, "Baserrietatik uribildura" ibilbide gidatua; 20:00etan, urdai jana plazan.

ARTEA

17:00etatik 20:00etara, *Reconocer nuestro cuerpo, cuidar nuestra salud* ikastaroa Patricia Verdes-en eskutik. Udalak antolatuta. Arratiako Andren Jabekuntza Eskola. Kultur Etxean.

IGORRE

18:00etan, 3-5 urteko umeentzat eta 19:00etan, 6-9 urtekoentzat, Sorgina Txiruliña ipuin kontalaria liburutegian.

18:00etan, Ines Medinaren mintegiko artista plastikoen *Prozesu sortzaile kontzientek* erakusketarean inaugurazioa, Borja Estankona musikariaren emonaldia.

21:00etan, Borrokan eta Meido taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.



ZEBERIO

19:00etan, Austarri Kultur Elkartek antolatuta, umeentzako antzerkia. Patata Tropikalaren Azken eguzkilorea.

URRI BIGARRENAK 21 AREATZA

09:00etan, Parketxeak antolatuta, Ixinatik ibilbide gidatua.

11:00etan, Euskal Jaia. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ARTEA

10:00etatik, 13:00etara, *Reconocer nuestro cuerpo, cuidar nuestra salud* ikastaroa Patricia Verdes-en eskutik. Udalak antolatuta. Arratiako Andren Jabekuntza Eskola. Kultur Etxean.

19:00etan, Noël Hazebroucq-en organo kontzertua eta inprobisazioa. Parrokia-eleizan.

DIMA

08:00etan, XI. Zizetan Mendi Martxea plazatik.

IGORRE

VI. Arratia Raid. 08:00etatik 09:00etara, taldeen harrera; 10:00etan, proba; 17:30ean, bazkaria; 18:00etan, zozketea.

22:00etan, zinea *Barry Seal* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

09:30ean, Gorbeia Jubiladuen Elkartek



Argazki Lehiaketa antolatu dau Lemoako Udalak egutegia egiteko

Urri bigarrena amaitu arte, Lemoa gaitzat daukien argazkiak bialdu daitezke Udaleko Kultura arloko kultura@lemoa.net helbidera. Lehiaketan parte hartu dabenen artean Udalak 12 aukeratuko ditu 2018ko egutegia egiteko.

Edonork hartu daike parte lehiaketa honetan, ez da beharrezkoa Lemoakoa izatea. Argazkiak zuri-baltzean edo koloreetan izan daitezke, argazki kamara zein telefonoagaz aterata, baina formatu horizontalean. Egile bakoitzak argazki bakarra bialduko dau, eta datu personalaz gainera, noz eta non egin eban argazkia azaldu behar dau. Sari banaketea Gabonetan izango da. Argazki sarituak egutegian agertuko dira eta 50 euro izango dabe saritzat.

antolatuta, mendi ibilaldia. Ibilbidea: Plazea-San Justo-Altzua-Undurraga-Plazea. Sagarna portalean.

10:00etan, Eleizondoko Monumentu-moltoari bisitaldi gidatua. Plazan.

URRI BIGARRENAK 22 IGORRE

17:00etan, zinea *Gru 3*; 19:30ean, *Barry Seal* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 23 LEMOA

16:15etik 19:00etara, bardintasunerako autobus ibiltaria eskoletan, herritarri informazio orokorra emoten. Eskoletan.

18:00etatik 20:00etara, Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta, gurasoentzako tailerrak Konfiantzak bizitzen ikasi: gure seme-alaben autoestimua landuz.

URRI BIGARRENAK 25 ZEANURI

10:00etan, Barazarko Zentral Hidroelektrikora bisitaldi gidatua. Zeanuriko plazan.

URRI BIGARRENAK 26 IGORRE

18:30ean, elikadura eta bizi estilo osasungarriaren gaineko berbaldia Zapzi Haizetara dendan. Izena aurretik emon behar da.

URRI BIGARRENAK 27 ARTEA

19:30ean, "Abigail eguna: elkartasuna eta esperantza" jaia plazan. Kantu jaia, pintxoak, erromeria...

IGORRE

20:30ean, Mikel Urdangarinen kontzertua Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 28 AREATZA

10:00etatik 14:00etara, herri galdeketerako boto aurreratua Areatza Dagigun alkartearen lokalean. Bekokalea 6-8.

20:00etan, The Sorry Street Band, The Quiet Corner-en.

IGORRE

08:20ean, Igorreko Jubiladuen Elkartek

antolatutako mendi ibilaldia. Igorre (bus)-Dima-Olazabal-Lamindao-San Migel Txiki-Arteako Industrialdea-Aretoa.

Arratiako Merkataritza Eguna. Ikusi programea 8. orrialdean.

Gazte kuadrila eguna. 12:30ean, Selfikana. Izena 688 898 765 telefonoan emon. 14:30ean, bazkaria aterpean. Txartelak hilaren 24ra arte Herriko Tabernan eta Kukuman salgai. Ostean, kuadrilen argazkia eta okalimotxo erraldoia. Arrastian, poteo musikatua.

22:00etan, zinea *Detroit* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Karbie Gaztetxearen 18. urteurrena. Goizetik hasita, jaia, bazkaria, jolasak eta gauean Calling The Riot taldea eta Brutality Sound Sistem DJa.

Jubiladuen eguna. 12:00etan, mezea eskolako aterpean eta Durundi Barri Dantza Taldea; 14:00etan, bazkaria kiroldegian.

UBIDE

10:00etan, Ubide-Zeanuri Larremankomunitatearen Zeharkaldia.

URRI BIGARRENAK 29 AREATZA

10:00-14:00, herri galdeketerako boto aurreratua Areatza Dagigun-en lokalean. Bekokalea 6-8.

BEDIA

09:30ean, Udalak antolatuta, Familiako urtekera Ekaingo kobetara.

IGORRE

17:00etan, zinea *Tadeo Jones. El secreto del rey Midas*; 19:30ean *Detroit*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

08:30ean, Arratia, Otxandio, Ubide eta Zeberioko Mendizale Eguna, plazatik urtenda.

URRI BIGARRENAK 30 BEDIA

10:00etan, Jubiladu eta pensionisten urtekera Gemikako Azokara; 14:30ean, bazkaria Landa Berde jatebtxean.

IGORRE

Jubiladuen Elkartek antolatuta, Gemikara urtekera.

ZEMENDIAK 2

20:00etan, *Una chica vuelve a casa sola de noche* filma Lasarte Aretoan. Zinekluba.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurri zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonoan.

DANERIK

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiltz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841

telefonora.

TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gaztelania praktiketea aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Mikel Urdangarinen kontzerturako.

Axular Kultur Elkartea (Igorre)
Estibaliz Izagirre (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Detroit* filmarako.

Eneko Iza (Igorre)
Borja Estankona (Artea)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Oihan. Arsenikoa. 2.- Uzta larrinean jo ondoren gelditzen dan lasto. Bokala. 3.- Bular. Euskera zaharreen, txakur. 4.- Modua, erea. Zeregin, egiteko. 5.- Kokolo. 6.- Bizkaiko ibaia. Nondik atzizkia. 7.- Italiako ibaia. Ameriketako ugaztuna. 8.- Oxigenoa. Andrazkoen izena. 9.- Musika nota. Beharra.

GOITIK BEHERA

1.- Neguko erropa bat. Bakazino. 2.- Bistako. Bokala. 3.- Apaizen jantzi luzea. Mila erromatar. 4.- Larrapote. Bokala. Birritan, gar-gar. 5.- Azken letrea. Ohitura. 6.- Bokala. Gomutamen. 7.- Soldata. Enborrak neurtzeko luzeera neurria.



Topau Euskal Herriko zazpi jantzen izenak.

A	T	Z	O	K	O	D	A	R	E
S	X	O	R	P	A	I	G	O	Z
T	A	R	K	O	T	A	R	A	P
A	Z	T	N	A	D	U	K	R	A
X	I	Z	K	O	L	I	N	U	T
U	R	I	L	A	M	O	R	E	A
R	O	K	E	T	A	R	O	R	D
I	B	O	N	K	E	Z	I	G	A
B	O	A	L	S	A	N	S	I	N
E	G	I	K	O	A	M	U	E	T
L	I	U	A	R	Z	O	J	A	Z
T	A	M	I	K	A	R	O	P	A
Z	I	N	T	A	T	A	R	A	L
A	T	X	I	A	T	A	L	E	N
K	A	X	A	R	R	A	N	K	A

**A
K
I
M
I
K
O**

Z
o
r
r
o
z
k
i
l
o



umaan moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAV & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskaltel.net

ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK, ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA, LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 61 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: unozulu@euskaltel.net

ELENA OCASAR

"Hamabost urte daroadaz zeanuriztarren gorputzak jagoten"

Elena Ocasar, Zeanuriko bizilaguna, gimnasia-begiralea da. Urteetan gimnasia disziplina askotako ikastaroak emon izan ditu, gehienbat Zeanurin bertan. Elena atletismoan trebatu zuen Gasteizen, Martin Fiz eta Blanca Lacambra izen handien ondoan.



Alvaro Rabelli

Eta denpora horretan?

Denpora horretan disziplina ugari landu izan dogu. Barriro dinot, nik lanketa fisikoari beti garrantzia emon izan deutsat, eta gero, gustuko izan dodana edo neuk egiten ikasi dodana emoten ahalagindu izan naz. Ez naz zentrau honelango edo halango disziplinan modu zehatzetan, handik eta hemendik gauza batzuk hartu eta emon baino. Hasi ginanean, Zeanuriko Kultura Etxean emoten genduzan ikastaroak, aerobika, etabar. Gaur gimnasia-lekua dogu, orain dala bost urtetik.

Beti Zeanurin?

Urte betez Areatzan be emon neban. Hamabost urte honeetan geldialdia be egin dot, urte betekoa. Egia esan, nire bizitzako etapa hau zarratu gura dot. Orain, bakarrik eguazten goizeko ikastaroa emoten dot, eta jentek, urteetan dabilan jentek, jarraituteko eskatu deustalako. Neure buruaz arduratu gura dot eta bestelango gauzak egin, besteak beste, euskera gehiago ikasi, presabarik.

Spinnig-a, pilatesa, gap-a... izen nahikotxo gimnasia ikastaroen artean, ezta?

Bai, baina gehienak merkadura

Gimnasia-begiralea, kirolaria... Zelan definituko zeunke zeure burua?

Atleta, batez be atleta izan naz. Sei urte neukazanetik atletismoan jardun dot, konbinaketa probetan. Sasoi baten Gasteizen, nire urian, sano ezagunak izan diran kirolari batzuk batera ibili izan naz, Martin Fiz, Blanca Lacambra... Baina, bai, esan leiteke Zeanurin gimnasia-begiralea nazala. Hamabost urte daroadaz zeanuriztarren gorputzak jagoten.

Beraz, Gasteiztik Zeanurira?

Bai, hara, jaiotzez Hemanikoa naz, baina, bai, hona Gasteiztik etorri nintzan. Badira, esan lez, hamabost urte etorri nintzala. Eta hasikeratik ikusi neban nik ondo egiten nekian zeozer eskeini neikela. Nik upealako garrantzia emoten deutsat lanketa fisikoari, beraz, etorri nintzanean halango ikastaroak egiteko proiektua landu eta Udalarai aurkeztu neutsan. Sasoi haretan ez egoan ezer. Horrelaxe hasi ginan. Gainera, herrian integretako modua izan zan niretzat, uritik herri txiki batera etorri, herri euskaldun batera... Etxetik urteteko atxakia be bazan.

begira dagoz, funtsean danak bardinak dira, oinarria lanketa fisikoa da, eta horretan, esaterako, arnasea hartzean jakitea ezinbestekoa. Horixe ikasi behar dogu. Gainera, hemen, herri txikietan ez dago halango eskaerarik, bai, jentek ezetuten dauz, batzuetan nik baino hobeto, baina, gehienbat, uri handietan egiten diran ikastaroak dira. Giharrak zaildu gura dabean gazteak urietako gimnasia-lekuetara jotzen dabe. Hemen ez, gurea askoz naturalagoa da.

Beste kontu bat da Yoga edo oraingo Txikun disziplinakaz gertatzen dana, ze, euren atzean filosofia dago, bizi ikuskera jakin bat. Niri hori guztia sano interesetan jat, baina, askotan ikusten dot hori gura dauan jentea azalean baino ez dala gelditzen, ez dau disziplina osotasunean ulertzen.

Ze jente mota dator zure ikastaroetara?
Batetik, gaurko gizarte estresatu honetan gertatzen dan lez, adrenalina gehiago bota gura dabena, edota kontrara, relaxa behar daben nahikotxo. Baina, bestetik, gehien-gehienak edadekoak iza-

ten dira, gorputzaren ajeak arindu gura dabeanak, edota lesinoak euki dabean beste batzuk. Nik ez deutsat ezer konponduko, hobeto sentiduten lagundu beharbada bai. Gainera, aurretiaz esan dodan moduan, nik danetarik apur bat emoten dot, gauza barriak ikasi eta hareexek emon, apaltasun osoz, neuri balio deusten gauzak, eta ahalik eta ondoen emon. Beste barik.

Eta Zeanurin jarduera fisikoa egiteko beharizan handia ikusten dozu?

Zeanurin ikusten dodana da sano herri kirolzalea dala. Hemengo jentek ohitura handia dauka mendian ibilteko, edota bestelango kirolak praktiketako. Joko Alai eta Suzien Mendí Klubak antolatutako ekintzetan parte hartzean dau jente askok. Horregaitik, ez dot ikusten gizarte sedentarioa danik. Beraz, ikastaroetara etortea, beharizan jakin batzuk gorabehera, askorentzat etxean sartuta ez egoteko modua da, hartu-emonai eusteko modua. Izan be, Zeanuri txikia da, eta hemen, goizez berbarako, ez dago ia inor.

"Zeanuri sano herri kirolzalea da"

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA